

Birgaitze energetikoa 5.000 biztanletik beherako udalerrietan (PREE 5.000)

2021eko abuztuaren 3an honakoa argitaratu zen EAOn Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barneko Hiria Birgaitzeko eta Berroneratzeko Planaren Birsortze eta Erronka Demografikoko Programaren baitan: [691/2021 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa, erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko jarduketei eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena. \(PREE 5000 programa\)](#)

Errege Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, erronka demografikoko udalerrri gisa hartuko dira **5.000 biztanlera arteko udalerrriak eta 20.000 biztanlera arteko hirikoak ez diren udalerrriak, baldin eta beren biztanleria-erakunde berezi guztiak 5.000 biztanlera artekoak badira.**

Programa 2023ko abenduaren 31 arte egonen da indarrean eta **50 milioi euroko zuzkidura** du, handitu ahal izango dena, baldin eta helburu horretarako aurrekontua erabilgarri badago. Diruz lagundu ahalko diren jarduketak hiru motakoak dira:

- Inguratzaileria termikoa hobetzea
- Instalakuntza termikoen efizientzia energetikoa hobetzea
- Argiztapen-instalazioak hobetzea.

Autonomia Erkidego bakoitzak laguntza deialdiak onetsi eta argitaratuko ditu.